

KORONABIRUSA ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

478 positibo berri
2.402 hildako EAEn
30.453 positibo guztira* UCIn EAEn

NAFARROAN

138 positibo berri
809 hildako
38.162 positibo guztira UCIn Nafarroan

*HERNANIN 1.044 (+12), ASTIGARRAGAN 236 (+5)

«Ez daude bizikidetzan aurrera egiteko lanean eta nahiago dute liskarrari eutsi»

Etixerat Elkarteak prentsaurrekoa egin zuen atzo goizean, eta euskal preso enegoaren hainbat datu plazaratu zituen. Egun, 129 euskal preso daude lehenengo graduan, eta gaixotasun «larriak eta sendaezinak» dituzten 18 daude espetxeetan.

URUMEA ETXERAT

Etixerat Elkarteak prentsaurrekoa egin zuen atzo, euskal preso enegoaren zein den azaltzeko eta horren gaineko datuak argitaratzeko. Patricia Lopezek eta Urtzi Errazkinek jakitera eman zuten, egun 173 preso daude Espainiar Estatuko 40 espetxetan. Aurreko horiek aintzat hartu gabe, «soilik 17 preso daude Euskal Herriko espetxeetan». Horretaz gain, 31 preso daude Estatu frantseseko 7 espetxetan. Horren bueltan, Espainian dauden 173 preso horietatik ia erdia (%49a), 600 eta 1.000 kilometroko distantziara dauden espetxeetan dago.

Halaber, emandako datuen

arabera, gaur egun preso bat isolatuta dago Soto del Realen, 129 preso daude lehenengo graduan, 53 bigarrenen eta 8, berriz, hirugarrenen. Errazkinek azpimarratu du lehenengo graduan dauden presoek «ukatu egiten dietela gizarteratzeko bidea», eta Velezen esanetan, «legeak dioena aintzat hartuta, ez lukete 14 egunez baino gehiago egon behar egoera horretan, baina euskal presoek urteak ematen dituzte horrela».

Bestalde, 2018ko irailetik Espainian 74 preso politikoko gertuago dauden espetxeetara eraman dituzte. «Tonbola bat da, ez dakigu zer irizpideren arabera egiten duten hori», esan du Lopezek. «Hala ere, aspalditik egon beharko lukete etxean», gehitu du Errazkinek.



Patricia Lopez Velez de Zubiria eta Urtzi Errazkin Telleria, atzoko prentsaurrekoan.

18 preso «larri» gaixo daude

«Kalean egon beharko luketen» 18 preso daude gaixo larrien zerrendan, eta horietatik, jakinarazi dutenez, 4 ez dira publikoak. «Zorritzarrez beste preso bat gehitu behar zaio zerrenda honi», esan dute. Izan ere, Gotzon Telleria Ugartek gaixotasun «larri eta sendaezina» du, eta 2017tik dago preso, Madrid VII-Estremerako espetxean. Gainera, Ibon Fernan-

dez Iradik esklerosi anizkoitza du eta positibo eman du COVID-19an. Horregatik, «isolatuta mantentzen dute», azaldu dute.

Azkenik, horri guztiari gehitu diote 89 adingabek ehunka kilometro egin behar dituztela gurasoak ikusteko. Horrekin, «bidaia ezin duten eta seme-alabak ikusi ezin dituzten senideen kopurua esponentzialki hazi da», salatu dute. **K**

Iker Salaberriak semifinala, bihar

GOIZUETA ESKU PILOTA

Salaberria goizuetarrak Eskuz Banakako Promozio Txapelketako finalaurrekoa jokatu du bihar Bergaran, Axier Arteaga lasartearraren aurka. 22:00etan hasiko da partida eta zuzenean emango du ETB1ek.

Euskaraldian izena eman daiteke

HERNANI EUSKARALDIA

Azaroaren 24ra arte luzatu dute hizkuntza-ohiturak aldatzeko ekimenean izena emateko epea. Horregatik, oraindik izena eman ez dutenek, txapa eskuratzeko gain gaur eta bihar dute inskripzioa egiteko aukera. Gaur Plaza Berrin postua jarriko dute arduradunek, 17:00etatik 19:00etara bitartean. Eta bihar, berriz, 12:00etatik 14:00etara bitartean izango dira bertan. Photocalla ere jarriko dute, argazkiak ateratzeko. Dagoeneko 2.000 pertsonako langa gaudituz dute eta, beraz, 2018an baino 300 izenemate gehiago daude oraingoz.

Salgai daude 2021. urteko egutegiak

HERNANI MENDIRIZ MENDI

Mendiriz Mendik datorren urteko egutegiak kaleratu ditu, eta dagoeneko salgai daude elkartearen lokalean, 3 euroren truke. Merchandising-a ere hasi dira saltzen, taldeko kamiseta, jaka eta bestelako jantziekin. Azaroan astelehenean eta ostegunetan zabalduko da, arratsaldeko 19:30etatik 21:00etara bitartean.

Kontzentrazioa Zinkoenean, gaur

HERNANI PRESOK

Ostiraleroko dinamikari eutsiz, kontzentrazioa egingo dute 20:00etan Zinkoenean, euskal preso enegoaren lagunek eta senideek.

'Gizon zoriontsuaren alkandora' haur-antzerkia izango da Biteri kultur etxean, larunbat eguerdian

Ettxeko txikienentzat antzerkia izango da larunbat honetan, euskeraz. Sarrerak salgai daude dagoeneko Biterin, 3 euroan.

HERNANI KULTURA

Kultur programazioaren baitan *Gizon zoriontsuaren alkandora* haur antzerkia izango da larunbat honetan Biterin. 7 urtetik gorakoentzat zuzendutako obra da, eta Ainara Unanue eta Aitor de Kintana antzezleak igoko dira oholta gainera. Interesa dutenek sarrera Biterin erosi dezakete, 3 euroko prezioan.

Egilea Leon Tolstoi da eta Patxi Zubizarretak euskeratu du testua. Tolstoi jatorrizko ipuineko paisaiak eta irudiak islatzen dituen dramaturgia bisual eta poetiko baten bidez garatzen da ikuskizuna, eta ikusleak harrituko dituen proiektzio eta ikus-efektuak erabiltzen ditu.

Datorren haur antzerkia abenduaren 12an izango da: Elirale konpainiaren 0! **K**



Ainara Unanue eta Aitor de Kintana aktoreak izango dira antzezleak.

Gerizpe
Kafetegia-Okindegia

682 156 795
Kale nagusia 5, Astigarraga

OGI BERRI

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Kontxa etxeberría 2
Astigarraga
943 12 64 24

BRINTZA
AHOLKULARITZA - CONSULTORIA

Lan-Aholkularitza
Fiskala
Aseguruak Inbertsioak
Zerbitzu Juridikoak

www.brintza.com
URBIETA KALEA 15, HERNANI
Tel: 943 33 12 67 Fax: 943 33 08 92

HATOR
AHOLKULARITZA

Fiskala, laborala
eta Kontabilitatea.

Gure zerbitzuak euskaraz
jasotzeko aukera duzu...

MAPFRE ASEGURUAK

Andre kalea 60, Hernani
Teli: 943 55 43 12
hator@hatoraholkularitza.net

-10%
LIXAKETA
IRAUNKORRETAN

-10%
GHD

11 KORAPILO
10 URTE

-10%
MOROCCANOIL

-10%
AZAROAN

GAUR Arratsaldean albatzera egingo du, baina giroa hotza izango da. Goizaldean eta goizeko lehen orduetan laino ugari izango ditugu, batez ere kantauri isurialdean, eta euri pixka bat egin dezake. Arratsaldean, oro har, eguzkitsua izango da. **Min.6° / Max.14°**

BIHAR Egunaren hasieran lainoa sortuko da hainbat txokotan eta goi-laino batzuk ere izango dira, baina goizak aurrera egin ahala zerua oskarbi geratuko da. Ekialdeko haizea ibiliko da eta hotz egingo du, maximoak igo daitezkeen arren. **Min.4° / Max.15°**

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) Egunez: **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** Gauez: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



Musika emanaldiak izango dira Biterin, datorren ostegunean

Idoia Asurmendi abeslaria eta Beste Urtaroak taldeen kontzertuak izango dira, 19:00etan.

HERNANI KULTURA

Udazkenerako plangintza zabal antolatu zuen Udalak, eta kultura emanaldi ugari izango dira datozen asteetan. Ostegunean, azaroaren 26an, Idoia Asurmendi abeslaria eta musikaria izango da oholta gainean. Gainera, egun berean ere, Beste Urtaroak taldearen kontzertua izango da Biterin ere. Arratsaldeko 19:00etatik aurrera herritarrek bi musika emanaldi hauekin arratsalde bikainaz gozatzeko aukera izango dute.

Asurmendiri musikarekiko zaletasuna familiatik datorri eta txikitatik hasi zen etxeko musika-tresnekin esperimentatzen. Orain urte batzuk hasi zen bakarlarri gisa kantatzen, euskal kantuen zein kanpoko pop-rock eta soul estiloko kantuen bertsoak eginez. Ostegunean aurkeztuko duen proiektu berri honetan helburua du, poesia, ilustrazioa eta animazioaren arteko fusioa egitea. Horretarako, Maria Osesen poesiak uztartuko ditu kontzertuan.

Beste Urtaroak taldeak, berriz, Iker Laurobaren orain ar-



Idoia Asurmendi eta Beste Urtaroak taldea izango dira Biterin, ostegunean.

teko diskoetako kantuak hartu eta folk esparrura eraman ditu, eta ostegunean azalduko dute lana. Horretarako, zenbait musika-tresnez baliatuz eta beste herrialdeetako doinuak euskal kulturari txertatuz: gitarra, pianoa, ukelelea eta cavaquinhoa, besteen artean. Haien musikarekin lortu nahi dutena da mundu osoan une berean dauden urtaroak elkartzera. Alegia,

kontinente guztietako urtaroak elkartu nahi dituzte, sortzen duten musikarekin.

Gonbidapena alde aurretik eskuratu behar da

Datorren osteguneko kontzertuetara joateko asmoa dutenek alde aurretik gonbidapena eskuratu behar dute. Eskuragai dute dagoeneko, <https://bibe.me/events> webgunean. **K**



Urumea-Berriko babes publikoko eta babes publiko tasatuko etxebizitzak.

Eskabideak aurkezteko epea zabalik dago

Babes publikoko 33 etxebizitza esleitzeko prozesua abian da. Abenduaren 4a eta 9a dira eskaerak aurkezteko epemugak.

ASTIGARRAGA UDALA

Astigarragako Urumea-Berriko etxebizitzaren promozioan eraikitzen ari diren bi blokeetan babes publikoko 15 etxebizitza eta babes publiko tasatuko 18 etxebizitza esleitzeko prozesuaren berri eman zuen Astigarragako Udala, eta atzo ireki zen eskabideak aurkezteko epea. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu dira oinarriak, eta hauexek dira eskabideak aurkezteko azken egunak: etxebizitza tasatuen kasuan abenduaren 4an amaituko da epea eta babes ofizialeko etxebizitzaren kasuan, berriz,

abenduaren 9an. Etxebizitza horiek 2 urte barru entregatuko dira, 2022an.

Udalak adierazi du astigarrarek izango dutela lehen tasuna. Horrekin batera, parte hartze-ko baldintza orokorrak hauexek dira: batetik, etxebizitzarik ez edukitzea; bestetik, Udaleko webgunean ikusgai dauden baldintza ekonomikoak betetzea.

Eskabideak non aurkeztu

Udalak jakinarazi duenez, eskabideak Urumea Berriren bulegoan aurkeztu behar dira. San Martin kalean dago, Donostian. Hala ere, posta elektronikoz ere aurkeztu daitezke: vpoastigarraga@urumeaberri.com edo tasadastigarraga@urumeaberri.com. Beste aukeretako bat da eskabideak Astigarragako udal-txean aurkezteko. Izan ere, udal-txean aurkeztutako eskabideak Urumea Berriko bulegoetara bidaliko dira. **K**

JASOTA BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. | Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

Burgesiaren diktadura zuzena gelditu

Bizi dugun egoera honetan, kurtsio politikoa, burgesiak, baldintzatuta bada ere, gure jardunak aurrera darrai. Horren adierazle dira asteburu honetan ditugun jardunaldi politikoak eta aurrera eramaten ari garen salaketa kanpaina.

Jardunaldi politikoak, azaroaren 19, 20 eta 21ean burutuko ditugu Andoainen eta Hernanin. Horren helburua, egungo kontrol mekanismoen eta askatasun urraketen inguruan hausnartu eta hauek, egungo testuinguruan betetzen dituzten funtzioak azalduzea da. Izan ere, beste neurri askorekin batera, gure inguruko herrietan, polizia-aren presentzia eta pankarten kontrako jardun sistematikoa edo gazteonganako identifikazio

arbitrario eta isun mehatsuak nabarmen egin dute gora azken hilabete hauetan. Hartu diren neurri murriztaileak, ustezko osasun kolektiboen izenean egin badira ere, garbi dago geratzeko etorri den eredu sozial bati erantzuten dietela: pobrezian eta askatasun faltan oinarritzen den etorkizunarena, alegia.

Argi gelditzen da politikari profesionalen lehen tasun bakarra ekonomia dela, eta bost axola zaizkiela langileon osasuna, bizi baldintzak edo gure oinarriko eskubideen defentsa (biltzeko eskubidea, askatasunez mugitzeko eskubidea...). Kutsapenaren igoeraren errua aisialdiari eta jendartearen arduragabekeriari botatzen diote, horrela zama guztia langileriarengan

jarriz. Argi eduki behar dugu, jendarte honetan kriminala den agenterik baldin badago hori ez garelako gu, baizik eta jendartearen zatirik haundiena bizimodu miserable batera kondenatzen duena dela hemen kriminala.

Hauk izango dira larunbatean, 18:30etan gudarien enparantzan egingo dugun kontzentrazioaren aldarrikapenak:

- Neurri diziplinario eta polizia-lak indargabetzea.
- Osasun baliabide sozialak indartzea.
- Eskubide zibil eta politikoak bermatzea.
- Langile klasearen antolakuntza sustatzea.

***Gutun osoa interneten ikusgai**
Jon Zumalabe Irastorza
GKSk kidea

'Erlauntza' eta 'Pirata arratoia' filmak izango dira Biterin, asteburu honetan

HERNANI ZINEMA

Joan den asteburuan izan zuen arrakasta ikusita, honetan ere *Erlauntza* filma proiektatuko dute Biterin. Bihar eta igandean arratsaldeko 19:00etan egongo da hori ikusteko aukera, eta astelehenean, berriz, 16:30etan, ikusleen egunean. Bestalde, haurrentzat ere zinema izango da asteburuan. Etxeko txikienek *Pirata arratoia* pelikula ikusi ahal izango dute Biterin, Julia Donaldsonek sortutako primerako istorio dibertigarria. Bihar eta etzi egongo da ikusgai, aurretik aipatutako orduan.

OSTALARIEN TXOKOA

Errioguardan eramateko menua. GAUR: Langostino entsaladilla + Bakailao fritjua piper berdeekin + "Brazo gitano" kremarekin bete. BIHAR: Barazki pastela + Esparrago berde eta langostinoren rebueltoa + Esne fritjua. **10,5 €.**

Egoki taberna. Orotarik eramateko, berezitasuna tortillak. Goizez irekia. **Deitu 666 608 293**

IRAGARKI MERKEAK

Garrailolaria mudantza eta Garbigunera edozein traste eramateko eskaintzen da.

Deitu: 667 721 443 (Xabino)

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**